<table>
<tr><td colspan="4">1.UNITATE DIDAKTIKOA: KALE GARBIKETA TAILERRA</td></tr>
<tr><td colspan="4">INPLIKATUTAKO ARLOAK: Natura, Gizartea eta Kultura Ingurumenaren ezagutza</td></tr>
<tr><td>GAIA: Ingurumenaren zaintza eta etika soziala.</td><td>MAILA: LH5-6</td><td colspan="2">SAIO KOPURUA: 3<br>-Lehenengoa Txingudiko Zerbitzuetako hezitzailearen eskutik.<br>-Bigarrena jolas tokiaren diagnostikoa egitea.<br>-Jolas tokia garbitzeko txandak antolatu eta ekitea.</td></tr>
<tr><td colspan="4">IKAS-EGOERAREN MARKOA</td></tr>
<tr><td colspan="4">Testuingurua: Bizi garen garai hauetan hondakinak lurrera botatzea pentsaezina izan beharko balu ere, ez da errealitatea. Kaleak egunero garbitzen dira, mendietako sastraka artean hondakinak ezkutatuta egon ohi dira eta azken urteetan itsasoan kilometrotako zabor irlak sortu dira. Gainera, ikusi besterik ez dago ikastetxeetako jolas-tokiak nola aurkitzen diren.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Abiapuntua: Askorentzat berezko ohiturak diren arren, gizartearen zati batek oraindik barneratu gabe ditu. Plastikozko zorro bat herriko plazan lurrera bota ezkero, litekeena da kale garbitzaileek jaso aurretik haizeak eta euriak bertatik mugitu eta naturan galtzea, horrek atzetik dakarren ingurumen inpaktuarekin.</td><td colspan="2">Azken ekoizpena: Ikastetxean patioaren diagnostiko bat egin, zenbat hondakin dauden, non pilatzen diren batez ere, zein motatakoak… Edukiontzi nahikoak al daude? Puntu estrategikoetan al daude?<br>Antolatu patio garbiketa egiteko txandak.</td></tr>
<tr><td colspan="4">PROPOSAMENAREN JUSTIFIKAZIOA</td></tr>
<tr><td colspan="4">Txingudiko Zerbitzuak Irun eta Hondarribia herrietako kale garbiketaz arduratzen dira beste hainbat lanen artean. Errealitate bat da lan honen beharra. Tailer honen bidez, norbanakoaren ekintzek duten eragina aztertzen da, horiek duten inpaktu zuzena azalduz, eta era berean kale garbitzaile lana goraipatuz.</td></tr>
<tr><td colspan="4">Funtsezko konpetentziak: STEM eta HK</td></tr>
<tr><td>Deskriptore operatiboak</td><td>Konpetentzia espezifikoak</td><td>Ebaluazio-irizpideak</td><td>Oinarrizko jakintzak</td></tr>
<tr><td>STEM5. Ingurumena babesteko ekintzetan parte hartzen du, proposamenak eginez.<br><br>HK4. Giza ekintzen eta ingurunearen arteko harreman sistemikoak ulertzen ditu, eta bizi-ohitura iraunkorrak hartzen hasten da.</td><td>5. Natura eta gizarte inguruneko sistemen ezaugarriak identifikatzea eta aztertzea, eta haien arteko harremanak ezartzea natura ondarearen balioa ezagutzeko eta hura kontserbatzeko eta hobetzeko ekintzei ekiteko erabilera arduratsu eta iraunkor baten bidez.<br><br>6.Gizakiak ingurunean egiten duen esku-hartzearen kausak eta ondorioak kritikoki aztertzea, pertsonen eta planetaren errespetuarekin, zaintzarekin eta babesarekin kontsekuenteak diren ohitura iraunkorrak praktikan jarriz, arazoei aurre egiteko, konponbideak bilatzeko eta konponbidean banaka eta elkarlanean jarduteko gaitasuna garatzeko.</td><td>5.2. Natura-, gizarte- eta kultura- inguruneko elementuen arteko konexio errazak egitea, eta elementu horien artean sortzen diren harremanak ulertzea.<br><br>5.4. Natura– eta kultura-ondarea kontserbatzeko eta hobetzeko jarrerak balioestea, babestea eta erakustea, iraunkortasunaren aldeko konpromisoak eta jokabideak islatzen dituzten proposamen eta ekintzen bidez.<br><br>6.1. Giza interakzioaren kausak eta ingurunean dituen ondorioak kritikoki aztertzea. Bizitza jasangarriaren kontzientzia transferitzea, planetak dituen arazoentzako irtenbideak bilatzeko eta bere ingurunean jendaurrean jakinarazteko.<br><br>6.2. Jarrera ekintzailea erakustea arazo ekosozialei aurre egiteko.</td><td>C. Gizarteak eta lurraldeak<br><br>2. Gizarteak denboran zehar.<br>-Natura eta kultura ondarea ondasun eta baliabide gisa; haren erabilera, zaintza eta kontserbazioa.<br><br>4.Kontzientzia ekosoziala.<br>-Erantzukizun ekosoziala. Pertsonen, gizartearen eta naturaren arteko erlazioak.<br><br>-Bizitza jasangarria.</td></tr>
<tr><td colspan="4">HELBURU DIDAKTIKOAK</td></tr>
</table>

<table>
<tr><td colspan="2">1.<br>2.<br>(...)</td></tr>
<tr><td colspan="2">METODOLOGIA</td></tr>
<tr><td>Printzipioak</td><td>Antolakuntza</td></tr>
<tr><td rowspan="2"></td><td></td></tr>
<tr><td>Baliabideak</td></tr>
<tr><td colspan="2">EBALUAZIOA</td></tr>
<tr><td colspan="2">Ebaluazio prozesua:</td></tr>
<tr><td colspan="2">Ebaluazio adierazleak:<br>1.<br>2.<br>(...)</td></tr>
<tr><td>Ebaluazio modalitatea:</td><td>Ebaluazio tresnak:</td></tr>
</table>